

Nola euskaratu malinkeraz pentsatu eta frantsesez idatzitako testu bat: Ahmadou Kouroumaren *Independentzien eguzkiak*

—
AIORA JAKA IRIZAR

Argitaratu berri da *Independentzien eguzkiak* (2023), Ahmadou Kourouma idazle malinke bolikostarraren lehen eleberria, Literatura Unibertsala lehiaketa eta bildumari esker euskarara ekarri ahal izan duguna. Egin dugu itzulpena, idatzi dugu hitzaurrea, aurkeztu dugu liburua, hitz egin dugu eleberriaz Donostiako Liburuaren Egunean, erantzun ditugu Arantxa Iturbek «Arratsean» irratsaioan egindako galderak, eta hementxe gaude orain, orri zuri baten aurrean, jadanik aipatutakoez gain besterik esan ote litekeen galdetuz geure buruari. Eta noski, jakina esan daitekeela gehiago, kontuan hartuta batez ere zein ezezaguna den Kourouma gurean eta zein gutxi dakigun literatura afrikarrak oro har, baina, norbera liburu batean hain murgilduta egon denean, iruditzen zaio kontatu duela jada kontatu beharreko guztia, eta liburu horren itzulpenari buruzko gogoeta pertsonal bat (edo izandako zailtasunen aurrean egindako hautuen halako justifikazio zurigarri bat) aspergarria edo ez-beharrezkoa irudituko zaiola edozein irakurleri. Nolanahi ere, Senezeko lagunei bere garaian hitzeman niena bete beharrez, eta Danele Sarriugartek (2022) duela bi urteko alerako idatzitako artikulua bihotz-altxagarriak lagunduta (besteak beste, emakumeok bikain egingo dugula jakin ezean enkarguak ez onartzeko joera hori aipatzen du Sarriugartek, eta badu horretatik franko ni gaur hemen erdi blokeatuta naukan izu moduko honek), ahaleginduko naiz itzulpenaren osagarri-edo izan nahi duen artikulutxo hau osatzen.

Lehiaketa aurreko presa: lagina irakurri, autoreaz informatu, liburua eskuratu eta itzuli!

Literatura Unibertsalak 2022ko udazkenean antolatutako lehiaketan proposatu zen Kouroumaren *Les soleils des indépendances* (1995). Ez nituen ezagutzen ez liburua, ez autorearen, baina,

lagina irakurri, eta berehala erakarri ninduen. Aise ohartu nintzen guztiz bestelako mundu batera eramango ninduela liburuak, errealitate zeharo arrotz batera, eta, halakoetan ohi dudanez, zuzenean ekin nion lagina euskaratzeari, ikusteko ea erronka gustagarria eta egingarria izango ote zitzaidan, eta esfortzuak mereziko ote zuen. Hilabete epea utzi ohi du EIZIEk halako lagin bat itzultzeko, eta nik behintzat ez dut inoiz izaten gauzak fundamentuz egiteko astirik; alegia, liburua osorik irakurri, egileari buruz informazioa bilatu, eta bien inguruan ongi dokumentatzeko. Halere, Donostiako liburutegi batean frantseseko jatorrizko liburua aurkitzeko zortea izan nuen, eta hasi behintzat hasi nintzen eleberria irakurtzen. Hala eman nuen, beraz, hilabetea, egunak uzten zizkidan ordu libreetan lehen kapitulua itzultzen eta gauari lapurtzen nizkion minutuetan nobelaren gainerakoa irakurtzen.

Liburua osorik irakurri gabe entregatu behar izan nuen azkenean lehen kapituluaren itzulpena, epeak harrapatuta. Hilabete eskas hartan, oinarrizko informazioa bilatu nuen Ahmadou Kouroumari buruz, eta jakin nuen idazle malinkea zela, malinkeraz pentsatu eta frantsesez idazten zuen idazle bolikostarra, 1927an jaio eta 2003an hila. Beraz, Frantziaren kolonialismoaren garaia bizi behar izan zuen haurtzaroan eta gaztaroan, eta kolonialismo horren aurkako jarrerak arazo bat baino gehiago ekarri zion: Malin, ikasle-mugimenduetan parte hartzeagatik, bota egin zuten Bamakoko goi-eskola teknikitik, eta, geroago, Boli Kostako batailoi autonomoan soldadu zebilela, uko egin zionez Afrikako kolonien independentzien aldeko manifestazioak erreprimitzeari, Indotxinara bidali zuten soldaduska egitera. Atzerrian hainbat urte egin ondoren, 1961ean itzuli zen sorterrira, Boli Kostak independentzia lortutakoan. Baina herrialdean ezarri zen erregimen berriarekin ere arazoak izan zituen: presidente berriaren aurkako konplot batean parte hartu zuelakoan, espetxeratu eta erbesteratu egin zuten. Handik aurrera, eta hil arte, jaioteritik urrun eman zuen bizitza, hasieran Afrikan eta gerora Frantzian.

Mendebaldeko Afrikako herrialdeek eta bereziki malinkeek kolonialismoan eta kolonialismo osteko garaian sufritu zituztenak bere larruan bizi behar izan zituen Kouroumak, eta injustizia horiek guztiak islatu eta salatu zituen bere lehen eleberrian, *Les soleils des indépendances* honetan. 1968an argitaratu zuen liburua, Montrealen, Frantziako argitaletxeen ukoa jaso ondoren. Bi urte geroago onartu zuen Seuil argitaletxeak eleberria Frantzian argitaratzea.

Horra hor, gutxi-asko, laginaren itzulpena lehiaketara bidali nuenean Kouroumaz eta haren nobelaz nekien guztia.

Lagina bidalita, eleberria lasai irakurtzeko astia

Itzulpen-lehiaketako epaimahaikideek beren deliberoa hartu arteko beste hilabete inguru horretan izan nuen, azkenik, hasia nuen eleberria osorik irakurtzeko denbora. Ederra iruditu zitzaidan liburua, exotikoa bezain hurbila, gogorra bezain samurra, ile-lazgarria bezain irri-egingarria. Izan ere, gordina da oso Kouroumak liburu honetan erretratatzeko duen errealitatea, latzak pertsonaiek bizi dituzten gertaerak.

Liburuko protagonista Fama Doumbouya izeneko gizon malinke bat da, kolonizazioaren garaian printze-familia batean jaioa, benetako oparotasun eta ohore artean. Independentziak, ordea, guztiz suntsitu dio negozioa, eta ez da gauza buruzagi tradizional moduan zaintzea dagoen tribua mantentzeko, zeina, gainera, mugaz bestaldera geratu baitzaio Afrikaren zatiketa berriaren arabera. Hiriburuan bizi da orain, bere emazte Salimatarekin batera, etxalde txiro batean, seme-alabarik gabe. Sarraskijale baten moduan hiletetan banatzen den limosnatik bizitzera kondenatua, alferrik saiatuko da garai prekolonialetan arbasoei egin zitzaien iragarpen zorigaitzokoa galarazten: ondorengorik izatea lortzen ez duenez, doumbouyatarren dinastia iraungitzen ari da.

Fikziozko pertsonaia horien bidez, errealitate gordina islatzen du eleberriak: kolonizazioak afrikarrei ekarritako sufrimenduak, independentzia osteko elite berrien inposaketak, horrek guztiak malinkeengan sortutako kultura- eta pentsamolde-gatazkak, islamaren eta sinesmen tradizionalen arteko talkak nahiz emakumeek sufritu beharreko izugarrikeriak (klitoriaren ablazioa, bortxaketa, antzutasuna, esplotazio ekonomikoa, gizonarekiko esklabotasun erabatekoa, senarra beste emazte batzuekin partekatu beharra...). Liburua irakurtzen bukatu nuenerako, damutzen hasia nintzen lehiaketan parte hartu izanaz. Irabaziz gero, lortuko ote nuen horiek guztiak Kouroumak frantsesez bezain maisuki kontaktzea nik euskaraz?

Etorri da deliberoa: lehiaketa irabazi, eta orain liburua itzuli behar!

Eta etorri zen epaimahaiaren deliberoa: nik irabazi omen nuen. Eleberria itzultzen jarraitu behar, beraz! Zortzi bat hilabeteko epea nuen lan guztia egiteko. Nondik hasi? Idoia Santamaría Ingeborg Bachmann idazle austriarraren *Aldibereko* liburuaren itzulpenaren inguruan idatzitako artikulua etorri zitzaidan burura. Itzulpen bati heldu aurretik, «ume begiluze apetatsu» baten moduan hasten omen da dokumentatzen, dena irakurri, prozesatu, inguratu, eskuratu nahian: «biografiak, idazlearen beste lanak, haren lanari buruzko azterketak, beste hizkuntza batzuetako itzulpenak, podcastak, filmak...» (Santamaría, 2020: 91). Hori omen da berarentzat itzulpen-prozesu ororen parterik atseginena (eta baita nolabaiteko aitzakia ere itzulpenaren arazo eta erronkei benetan heltzea geroratzeko). Fakultatean ere halako zerbait aholkatzen ziguten: liburu bat itzultzen hasi aurretik, ongi dokumentatu autorearen bizitzaz eta idazkeraz, liburua idatzi zeneko testuinguruaz, testuaren estiloaz eta abarrez. Ni, ordea, ipurtarinergia naiz horretarako; ez dut pazientziarik dokumentazio-lanetan «denbora galtzeko»; irrikatzen egoten naiz itzulpenean murgiltzeko, testuak jartzen dizkidan korapiloak askatzeko, harresiak eraisteko, erronkak gainditzeko. Arazo jakinek eramango naute gero bestelako lanak irakurtzera, soluzioak aurkitzen lagunduko didaten pistak bilatzera. Baina hasi, horrela hasi ohi naiz, bero-beroan, askorik pentsatu gabe. Hori bai: ahalegintzen naiz jatorrizko testuaren itzulpen bat edo beste bilatzen, ulertzen ditudan hizkuntzetan, beste itzultzaile batzuek arazo jakinen aurrean zer egin duten ikusteko. Kasu honetan, alemanezko (Kourouma, 1978), inge-

lesezko (Kourouma, 1981) eta gaztelaniazko (Kourouma, 1986) itzulpenak bilatu eta eskuratu nituen.¹

Itzultzen hasi orduko, madarikazioka

Horrela heldu nion, bada, itzulpenari, zertan sartzen ari nintzen ondo jakin gabe. Eta berehala egin nuen behaztopa lehenengo harriarekin. Eleberriaren hasieran, Fama Doumbouya hiletatospakizun batera doa, han banatuko diren limosna eta jakietatik ahalik eta gehien eskuratzeko esperantzan, baina berandu dabil, presaka doa, eta bidean aurkitzen duen guztiak amorrarazten du. Halako batean, hauxe oihukatzen du: «Bâtard de bâtardise ! Gnamokodé !» (Kourouma, 1995: 11). Argi dago madarikazio edo birao moduan botatzen dituela esapide horiek, baina ezin jakin azken hitz horrek zer esan nahi duen, argi baitago ez dela frantsesezko hitz bat. Hor hasi zen, beraz, nire lehenengo dokumentazio-bilaketa, ea norbaitek argitzen zidan zer esan nahi zuen. Eta, hitz horri tiraka, Carmen Alberdik (2019) liburu honi buruz idatzitako artikulu interesgarri bat topatu nuen. Alberdik ezin hobeki erakusten duenez, Kouroumak malinkera kutsuko frantsesa erabiltzen du eleberri honetan, ahozko transmisioan oinarritutako tradizio narratibo eta diskurtsiboan oinarritzen den ondare kultural bat islatzera bideratutako hizkera berri bat, 1960ko hamarkadako Afrikako beste hainbat idazle postkolonialek bezala. Hizkera hori, hortaz, bi aldiz hibridoa dela frogatzen du Alberdik: malinkeraz zipriztindutako frantsesa delako batetik, eta alde guztietatik ahozkotasuna darion hizkuntza idatzia delako bestetik.

Hain zuzen ere malinkerazko zipriztin horien adibide garbia dugu gorago aipatutako «Gnamokodé» hori. Liburuan zehar beste zenbaitetan egiten duen moduan, malinkerazko esapidearekin batera ematen du Kouroumak frantsesezko itzulpen literala edo hitzez hitzezko kalkoa. Kasu honetan: «Bâtard de bâtardise». Erraza zen malinkerazko esamoldea bere horretan uztea, baina nola euskaratu frantsesezko itzulpen literal hori? Kontuan hartuta behin eta berriro errepikatzen den esapidea dela, beti madarikazio moduan erabiltzen dela eta gainera malinkerazko ohiko birao bat dela, garrantzitsua iruditzen zitzaidan euskaraz halako arrotz kutsu bat izango zuen formularen bat erabiltzea. Hainbat buelta eman ondoren, «bastartkeria bastarta» hautatu nuen, euskaraz *-keria* atzizkiak duen kutsu gutxiesgarria baliatuta eta ikusita Egungo Euskara-

1. Ingelesezko bertsioa lagungarria izan zait pasarte askotan. Irakurri dudanez, Adrian Adams itzultzaile eskoziarrak Boli Kostan igaro zituen bere bizitzako azken hogeita bost urteak, eta gertu-gertutik ezagutu zituen bai malinkeak, bai haien kultura eta hizkuntza. Ziurrenik horri esker, jatorrizkoan arrotz samarrak gerta litezkeen esaldiak oso modu ulergarrian itzultzen ditu ingelesera, nahiz agian horrek testuaren berezko arrotzasuna dezente leundu. Alemanezko itzulpenak ere balio izan dit itzultzeko zailak ziren pasarte batzuen konponbidea aurkitzen. Ez, ordea, gaztelaniazkoak: jatorrizkoa oso ongi ulertu gabe eginiko itzulpena iruditu zait, askotan sorburu-testuan esaten denaren aurkako zentzua ematen baitu xede-testuak. Gerora jakin dut badela gaztelaniazko beste bertsio berriago bat, 2005ekoa, Mireia Porta i Arnau itzultzailearena. Argitalpen-datagatik soilik (Interneten aroan itzulua da, aurrekoak ez bezala), hobe izan behar du, nahiz eta adiskideren batek esan didan ez zaiola oso ona iruditu.

ren Hiztegiak jasotzen duela *bastartkeria* hitza (Koldo Izagirrek Victor Hugoren testu bat frantsetik euskaratzean erabilitako esaldi bat adibide moduan emanaz), nahiz eta *sasiko*, *sasikume* eta *sasikumetu* ere erabili ditudan testuan zehar «bâtard» eta «abâtardissement» itzultzeko.

Honela geratu zitzaidan, beraz, eleberriaren hasierako pasarte horren itzulpena:

<p>Aux funérailles du septième jour de feu Koné Ibrahima, Fama allait en retard. Il se dépêchait encore, marchait au pas redoublé d'un diarrhéique. Il était à l'autre bout du pont reliant la ville blanche au quartier nègre à l'heure de la deuxième prière ; la cérémonie avait débuté.</p> <p>Fama se récriait : « Bâtard de bâtardise ! Gnamokodé ! » Et tout manigançait à l'exaspérer. Le soleil ! le soleil ! le soleil des Indépendances maléfiqes remplissait tout un côté du ciel, grillait, assoiffait l'univers pour justifier les malsains oranges des fins d'après-midi. Et puis les badauds ! les bâtards de badauds plantés en plein trottoir comme dans la case de leur papa. Il fallait bousculer, menacer, injurier pour marcher. (11. or.)</p>	<p>Koné Ibrahima zenaren zazpigarren eguneko hiletan, Fama berandu zebilen. Presaka zihoan, kakeriak jotako gaixoaren ibilera arinaz. Hiri zuria auzo beltzarekin lotzen duen zubiaren beste muturrera iritsia zela, bigarren otoitza entzun zuen: hasia zen zeremonia.</p> <p>—Bastartkeria bastarta! Gnamokodé!—oihukatzen zuen Famak.</p> <p>Eta bere onetik ateratzen zuen denak. Eguzkia! Eguzkia! Hortxe Independentzia galgarrien eguzkia, zeruaren alde oso bat betetzen, kiskaltzen, unibertsoa egarritzen, zertarako eta arratsko ekaitz madarikatuak zuritzeko. Eta hortxe begiluzeak! Hortxe begiluze bastartak, espaloia- ren erdi-erdian geldi, beren aitaren etxean bezala. Bultzatu, mehatxatu, iraindu egin behar aurrera joateko. (24. or.)²</p>
--	---

Madarikazio, birao eta irainak ugariak dira testuan zehar. Laido goren moduan erabiltzen den «bâtard» horrekin batera, etengabe baliatzen dira «âne» (*asto*) eta «chien» (*txakur*) hitzak inor iraintzeko, hitz horiei «fils de» (*-kume*) gehituta askotan. Itzulpenean, *asto* hitza baliatzeko modukoa iruditu zait, euskaraz ere erruz erabili izan direlako hitz horretatik eratorritako laidoak (*astazakil*, *astapotro*, *astakilo*...). *Txakur* hitzak ere izan dezake halako kutsu gutxiesgarri bat, txakurkeriak edo maltzurkeriak egiten dituen izendatzeko erabil baitaiteke, baina hor dago poliziaren esanahi kolokiala ere, eta, frantsesez «fils de chien» irain gisa ulertzen den arren, euskarazko *txakurkumek* ez du inolaz ere konnotazio bera. Hala, bada, *asto* eta haren eratorriak erabili ditut halakoak itzultzeko. Adibide batzuk:

<p>Mais Fama n'usa pas sa colère à injurier tous ces moqueurs de bâtards de fils de chiens. (13. or.)</p>	<p>Baina Famak ez zuen bere sumina xahutu adarra jotzen baino ez zekiten astakume bastart haiek guztiak iraintzen. (26. or.)</p>
--	---

2. Artikuluan aipatzen diren pasarteetan beltzez ageri diren hitzak neronek nabarmenduak dira.

<p>Fama [...] s'excitait, trépignait, maudissait : le fils de chien de Bamba montrait trop de virilité ! Il fallait le honnir, l'empoigner, le mordre. (16. or.)</p>	<p>Fama [...] hain zegoen aztoratuta, lurrari ostikoka, biraoka: Bamba astakume hura eta haren gizontasun-erakustaldia! Laidoztatu egin behar zuen, gogor astindu, hozkatu. (30. or.)</p>
<p>Il tâta sa poche ; le couteau s'y trouvait assez long pour répandre les entrailles du fils de chien . (17. or.)</p>	<p>Sakela haztatu zuen: hantxe zegoen labana, astakume hari erraiak ateratzeko bezain luzea. (32. or.)</p>
<p>Fama tendit les oreilles. Il avait eu raison de ne point décoller, de ne point pardonner, le fils d'âne de griot mêlait aux éloges de l'enterré des allusions venimeuses : quel rapport l'enterré avait-il avec les descendants de grandes familles guerrières qui se prostituaient dans la mendicité, la querelle et le déshonneur ? Fils de chien plutôt que de caste ! Les vrais griots, les derniers griots de caste ont été enterrés avec les grands capitaines de Samory. (17.-18. or.)</p>	<p>Famak belarriak zorrotzu zituen. Ongi egin zuen ez baretuta, ez barkatuta, griot astakume hark iruzkin pozoitsuak txertatzen baitzuten lurperatuaren goresmenean: zer zerikusi zuen ba lurperatuak gudari-familia handien ondorengo kastagalduekin?, zer eskean, liskarrean eta desohorean prostituitzen ziren haiekin? Ez leinukume, ez kasta-kume, astakume alaena baizik! Benetako griotak, azkeneko griot kastadunak, Samoryren kapitain handiekin batera ehortzi zituzten. (32. or.)</p>
<p>des lacs d'eau continueront de croupir comme toujours et les nègres colonisés ou indépendants y pataugeront tant qu'Allah ne décollera pas la damnation qui pousse aux fesses du nègre. Bâtards de fils de chien ! (27. or.)</p>	<p>putzuek hortxe segituko dute, eta beltz kolonizatuek edo independenteek oinak bustitzen jarraituko dute, harik eta Alak beltzen ipurdian itsatsitako madarikazioa desegiten duen arte. Astakume bastartak! (44. or.)</p>

Pasarte horietan susma daitekeen bezala, ahozketasuna eta komikotasuna dira nagusi Kouroumaren testuan. Jorratutako gaiak gordinak eta lazgarriak izanagatik, deskribatzen dituen egoeren kritika satiriko eta umoretsua egiten du autoreak, hainbat estrategiaren bidez: harri-durazko esaldiak, galdera erretorikoak, irakurleari zuzendutako keinuak, konparaketak eta metaforak, atsotitz tradizionalak, errepikapenak, arrunkeariak... Halakoak aztertu eta zerrendatu dituztenen lanak irakurtzea (Alberdi, 2019; Kodah, 2014; Van den Avenne, 2005; Kamgang, 2012; Moruwawon, 2010, besteak beste) oso baliagarria izan zait testuaren tonuaz, estiloaz eta egituraz hobeto jabetzeko eta itzulpena egitean erabaki zuzenagoak hartzeko. Ahozketasun eta komikotasun horren erakusgarri, ezaugarri horietako batzuk aletuko ditut hurrengo ataletan.

Atsotitzak: deformatuak nahiz interes berekoien arabera baliatuak

Atsotitzak gizatalde batek arbasoengandik jasotzen dituen esaera zaharrak dira, egia zuhurren bat gordetzen dutenak eta errespetatu beharreko arau praktiko edo moralen bat adierazten dutenak. Kouroumaren liburuan, ordea, atsotitzak oso modu komikoan erabiltzen dira hasiera-

hasieratik (Kodah, 2014: 19). Izan ere, pertsonaiek beren ezintasun, ahulezia, kontraesan edo helburu egozentrikoak zurrizko erabiltzen dituzte atsotitzak, askotan nahieran egokituz eta deformatuz. Hala, beren benetako balio morala eta garrantzi soziokulturala galtzen dute, eta ironia eta umore handia eranstean diote testuari.

Esate baterako, bada musulmanen artean ezaguna den atsotitz bat: Alak, zeruan bizi den artean, ez du inoiz musulman on bat goseak utziko, edo halako zerbait. Esaera horren irakaspene edo gomendioa, ziurrenik, honelako zerbait izango da: izan zaitez musulman ona, eta ez zara gosez hilko. Alabaina, Famak bere eskaletasuna justifikatzeko erabiltzen du atsotitz hori, hiletetan banatzen diren limosna eta mokadutxoetatik bizi beharra zurrizko:

<p>Mais alors, qu’apportèrent les Indépendances à Fama ? Rien que la carte d’identité nationale et celle du parti unique. Elles sont les morceaux du pauvre dans le partage et ont la sécheresse et la dureté de la chair du taureau. Il peut tirer dessus avec les canines d’un molosse affamé, rien à en tirer, rien à sucer, c’est du nerf, ça ne se mâche pas. Alors comme il ne peut pas repartir à la terre parce que trop âgé [...], il ne lui reste qu’à attendre la poignée de riz de la providence d’Allah en priant le Bienfaiteur miséricordieux, parce que tant qu’Allah résidera dans le firmament, même tous conjurés, tous les fils d’esclaves, le parti unique, le chef unique, jamais ils ne réussiront à faire crever Fama de faim. (25. or.)</p>	<p>Baina, orduan, zer ekarri zioten Independentziek Famari? Nortasun-agiri nazionala eta alderdi bakarreko txartela besterik ez. Pobrearen pusketak, zezen-haragia bezain idor eta gogorak. Alano gosetu baten letaginekin hozka eginda ere, ez dago ezer ateratzerik, ezer zurrupatzerik, ezer murtzikatzerik: zaina baino ez da. Beraz, Fama zaharregia denez bere lurraldera itzultzeko [...], ez zaio beste aukerarik geratzen: Ongile urrikaltsuari otoitz eginez, Alaren probidentziaren arroz-eskukadari itxaron, zeren, Ala zeruan bizi den artean, denek elkar hartuta ere, esklabokume guztiek, alderdi bakarrak, buruzagi bakarrak, sekula ez baitute lortuko Fama gosez hiltzerik. (41.-42. or.)</p>
--	--

Beste adibide honetan, ez dirudi esaera zaharrak desitxuratuta daudenik. Alabaina, zer testuingurutan erabiltzen diren kontuan hartuta, ezbaian geratzen da haien balio morala. Izan ere, erregimen berriko presidente diktadore eta torturazaitaleak bere ustezko gizatasuna eta barkaberatasuna erakusteko baliatzen ditu, atxilotu, torturatu eta kontzentrazio-esparruetan luzaz eduki dituen presoak askatuko dituela iragartzeko diskurtsoan:

<p>Les anciens proverbes de nos aïeux restaient toujours vrais. La plus belle harmonie, ce n’est ni l’accord des tambours, ni l’accord des xylophones, ni l’accord des trompettes, c’est l’accord des hommes. « Un seul pied ne trace pas un sentier ; et un seul doigt ne peut ramasser un petit gravier par terre. Seul lui, le président, ne pouvait pas construire le pays. Ce sera l’œuvre de tout le monde. » (174. or.)</p>	<p>Egia ziren oraindik gure arbasoen antzinako atsotitzak. Harmoniarik ederrena ez da ez danborrena, ez xilofonoena, ez tronpetena, gizakien artekoa baizik. —Oin bakar batek ezin du bide bat ireki; hatz bakar batek ezin du lurreko harri xeheena ere jaso. Presidenteak, berak bakarrik, ezin du herrialdea eraiki. Mundu guztiaren lana izango da. (222. or.)</p>
---	---

Konparazioak: pertsonaiak animaliekin edo naturako elementuekin alderatuz barregarri uzteko estrategiak

Testuaren etengabeko tonu umoretsu hori lortzen laguntzen dute, era berean, konparazioek. Batzuetan pertsonaien ahaleginen alferrikakotasuna azpimarratzeko, beste batzuetan narratzaileak pertsonaia batekiko sentitzen duen antipatia adierazteko, baina behin eta berriro agertzen zaizkigu pertsonaiak animaliekin edo naturako elementuekin alderatuta. Hona hemen barregarrietako batzuk:

On avait pour ceux-là des prétextes de l'écarter, Fama demeurant analphabète comme la queue d'un âne . (24. or.)	Baziren aitzakiak, beraz, Fama lanpostu haietatik baztertzeko, asto baten buztana bezain analfabeto izaten jarraitzen zuen eta. (41. or.)
Le délégué étranger, ignorant des coutumes malinké, se répétait, se redressait et rebondissait, inconciliant, toujours indomptable, comme le sexe d'un âne enragé . (135. or.)	Ordezkarari atzerritarra, ohitura malinkeetan ezjakina, behin eta berriro altxatzen zen gauza bera errepikatzeko, geldigaitz, asto amorratu baten zakila bezain manugaitz eta menderakaitz . (178. or.)
Malinké comme Fama, diplômé de Paris et comme tous les jeunes Malinkés débarquant de France, impoli à flairer comme un bouc les fesses de sa maman, arrogant comme le sexe d'un âne circoncis . (162. or.)	Malinkea zen, Fama bezala, Parisen ikasia eta, Frantziatik itzulitako malinke gazte guztiak bezala, bere amaren ipurdia usaintzen duen ahari bat bezain lotsagabea, asto erdaindu baten zakila bezain harroa . (208. or.)
Parce que d'abord un garçonnet, un petit garnement européen d'administrateur, toujours en courte culotte sale, remuant et impoli comme la barbiche d'un bouc , commandait le Horodougou. (23. or.)	mutiko barrabas bat jarri baitzuten Horodougou gobernatzeko, administratzaile europar bat, prakamotz zikinetan beti, aker baten kokospeloa bezain ipurtarina eta gaizki hezia . (39. or.)
Fama avait comme le petit rat de marigot creusé le trou pour le serpent avaleur de rats, ses efforts étaient devenus la cause de sa perte car comme la feuille avec laquelle on a fini de se torcher , les Indépendances une fois acquises, Fama fut oublié et jeté aux mouches . (24. or.)	Fama uretako arratoi bat bezala aritu zen suge arratoi-jalearentzako tunela zulatzen; egindako ahaleginak bere galeraren iturri bilakatu zitzaizkion, zeren, ipurdia garbitzeko erabilitako papera bezala , behin Independentziak lortuta, ahaztu eta eulitara jaurti baitzuten . (40. or.)
les femmes propres devenaient rare dans le Horodougou comme les béliers à testicule unique . (130. or.)	Gero eta bakanagoak ziren emakume aratzak Horodougoun, barrabil bakarreko ahariak bezala . (171. or.)

Malinkeraren oihartzunak frantsesezko testuan: erreproduzitu ote daitezke xede-testuan?

Jadanik aipatua dut liburu hau ezaugarritzen duen hibridazio linguistikoa. Kouroumak nahi-ta desitxuratu zuen frantsesa, bere testuan malinkeraren oihartzunak entzun zitezten. Kolonizatzaileek inposatutako hizkuntza menderatzaileari aurka egiteko bide bat zen, batetik, eta malinkeen mundu-ikuskerara islatzeko estrategia bat, bestetik. Carmen Alberdik (2019: 178) erakusten duen moduan, bi modu nagusitan ematen dio Kouroumak kutsu malinke hori bere testuari: batetik, modu «ikusgai» batean, testuan malinkerazko hitzak zuzenean tartekatuz eta halako *code-switching* bat sortuz (hori litzateke lehenago aipatu dugun «Gnamokodé» horren kasua, non malinkerazko espresioaren aurretik frantsesezko itzulpen literala eskaintzen baita); gehienetan, ordea, modu «ikusgaitz» batean entzunarazten du malinkeraren doinua, frantsesa nolabait «malinkeratuz», frantsesez agramatikalak diren egiturak sortuz eta hala malinkeratiko zuzeneko kalkoak eginez. Eta horixe da testuak itzultzaileari ezartzen dion erronka handienetako bat: nola eraman beste hizkuntza batera malinkerara lerraturiko frantses hautsi hori? Xede-hizkuntza ere desitxuratuz, ala agramatikaltasun horiek guztiak saihestuz? Zenbat eta zenbat orri ez ote diren idatzi itzulpen postkolonialaren auzi korapilatsu honen inguruan. *Foreignization* delako korrontearen aldekoek argudiatu izan dute testuaren arrotasun hori nolabait mantendu behar dela xede-testuan, bestela isilarazi egiten dela autoreak bere testuan entzunarazi nahi zuen hizkuntza isildu, azpiratu, kolonizatu eta gutxietsia. Kontua da nola erreproduzitu frantses hizkuntzak malinkeen ahotan jasaten dituen deformazioak euskarazko testu batean, kontuan hartuta, gainera, euskara ez dela hain justu frantsesaren pareko hizkuntza hegemoniko, kolonial eta indartsu bat. Malinkekada asko berdindu-edo egin behar izan ditut, xede-testuaren irakurgarritasunaren alde. Esate baterako, Kamgangek (2012: 127) aipatzen duen «substantiboen adjektibo-erabilera» ezin izan dut modu berean agerrarazi euskarazko xede-testuan, frantsesak eta euskarak ez dutelako berdin funtzionatzen izen-sintagmen eraketan. Beheko adibideen artetik, bigarrena da jatorrizkotik gertuen dagoena, hitz-elkarketari esker bere horretan geratu delako «harmattan» substantiboa, baina euskaraz hitz-elkarketak egiteko modu hori arrunta da guztiz, eta ez du sorburu-testuan duen kutsu arrotz hori inolaz ere iradokitzen. Beste hiru adibideetan, berriz, zerbait gehitu behar izan diot substantibo hutsari:

et plus loin encore la lagune maintenant latérite , (12. or.)	eta urrutiago aintzira berriro, oraingoan lateritazkoa , (24. or.)
Une autre brousse écrasée par le soleil, le même horizon harmattan , le même ciel serein, (94. or.)	Beste sabana-eremu bat eguzkiak kiskalia, harmattan -zerumuga berbera, zeru bare berbera, (125. or.)
Les mêmes matins avec le même brouillard kapok et la même senteur de charbon ardent arrosé de pissat, (120. or.)	Goiz berberak, kapokezko behe-laino berbera eta pixaz bustitako ikatz goriaren kirats berbera. (159. or.)
Le matin était patate douce . (161. or.)	Goiza batata bezain gozoa zen. (207. or.)

Kamgangek aipatzen dituen frantsesaren beste hainbat erabilera oker edo behartu ere ezin izan ditut erreproduzitu euskarazko testuan (adjektiboen adberbio-erabilera, partizipioen substantibazio ezohikoa, objektu zuzenik gabeko perpaus trantsitiboak...), dela euskaraz guztiz arrotz, oker edo are ulergaitz geratuko ziratekeelako, dela aitzitik euskaraz formula arruntarruntak direlako, malinkeraz bezala. Adibide hauetan, esaterako, frantsesez arrotza gertatzen da partizipioa substantibo moduan erabiltzea. Ez, ordea, euskaraz:

Le Coran dit qu'un décédé est un appelé par Allah, un fini ; (105. or.)	Hildako bat, Koranak dioenez, Alak deituko bat da, akabatu bat; (139. or.)
Les assis se levèrent, serrèrent les mains des arrivants (133. or.)	Zutitu ziren eseritakoak , estutu zituzten iritsitakoen eskuak, (175. or.)

Zenbait kasutan, baina, ausartu naiz euskararen egitura edo erabilera arrunta nolabait borxatzeraz xede-testua malinkeraren doinu horrekin bustitzeko. Kouroumak behin baino gehiagotan kalkatzen du malinkeratik aditz intrantsitiboen erabilera trantsitiboa. Alegia, frantsesez modu intrantsitiboan erabiltzen diren aditz batzuei objektu zuzena erantsiz, frantsesez arrotzak edo are agramatikalak diren esapideak sortzen ditu. Euskaraz ere antzeko kutsu arrotza sortzen zuten, eta testuan behin eta berriz errepikatzen zirela ikusita, honela itzuli ditut *eseri* eta *makurtu* aditz intrantsitiboekin osatutako perpausak:

Assois tes fesses et ferme la bouche ! Nos oreilles sont fatiguées d'entendre tes paroles ! (15. or.)	Eseri ipurdia eta itxi ahoa! Gure belarriak nekatuta daude zure hitzak entzuteaz! (29. or.)
Rapidement le soleil montait au-dessus des têtes et le repas s'asseyait autour des calebasses communes. (126. or.)	Eguzkia bizkor igotzen zen buruen gainera, eta otordua kalabaza komunaren inguruan esertzen zen. (166. or.)
Il alla saluer, se courba, se pencha à la porte de la case où les veuves asseyaient le deuil (128. or.)	Alargunak agurtzera joan, eta emakumeek dolua eseri behar zuten etxolaren atearen aurrean makurtu zen (169. or.)
Dans l'après-midi un palabre fut convoqué et assis . (151. or.)	Arratsaldean, asanblada bat deitu eta eseri zuten. (195. or.)
Après la dernière prière courbée les palabres éclatèrent. (95. or.)	Azken otoitza makurtu orduko, solasaldiari ekin zitzaion. (127. or.)
troisième prière de ce jour que Fama devait courber sur la tombe. (114. or.)	Eta egun hartako hirugarren otoitza hilibiaren gainean makurtu behar zuten Famak. (150. or.)

Mercredi le soleil arriva au point de la troisième prière . On la courba ensemble. (133. or.)	Asteazkenean, eguzkia hirugarren otoitzaren ordura iritsi zen. Elkarrekin makurtu zuten. (175. or.)
La quatrième prière arriva trop tôt, mais on la courba très scrupuleusement, puis la nuit suivit. (135. or.)	Nahi baino lehenago iritsi zen laugarren otoitza , baina zintzotasun osoz makurtu zuten, eta azkenik gaua etorri zen. (178. or.)

Azkenik, bada behin eta berriz errepikatzen den beste esapide bat, kultura malinkean hain garrantzitsua den ohitura bat deskribatzen duenez bere horretan itzuli nahi izan dudana, frantsesez eta euskaraz nahiko arrotz geratzen den arren: «tuer des sacrifices», hau da, *sakrifizioak hil*. Sakrifizio bat, frantsesez nahiz euskaraz, jainkotzat hartzen den izaki bati gurtza gisa egiten zaion eskaintza da. Eskaintza hori egiteko, askotan, animalia bat sakrifikatu edo hiltzen da, baina hiltzen dena animalia da, ez sakrifizioa. Baina, badirudienek malinkeraz jainkoei eskaintzeko hiltzen den animalia izendatzeko ere erabiltzen dela *sakrifizio* kontzeptua, euskaraz ere halaxe itzultzea erabaki dut, esapidearekin behin eta berriz topo egitearen poderioz irakurlea egitura malinke horretara ohituko delako esperantzan. Hona hemen adibide batzuk:

Prier Allah nuit et jour, tuer des sacrifices de toutes sortes, même un chat noir dans un puits ; (24.-25. or.)	Ala gau eta egun otoiztu, mota guztietako sakrifizioak hil , baita katu beltz bat putzu batean ito ere; (41. or.)
Et tout le restant du jour, aux pieds de la patiente, fumèrent les sacrifices , roulèrent les colas blancs et rouges pendant que sa maman pleurait. (38. or.)	Eta, egun osoan, ohe ondoan, ketan egon ziren sakrifizioak , biraka kola-intxaur zuri-gorriak, eta negarrez Salimataren ama. (56. or.)
Mes conseils se limiteront à te recommander de tuer immédiatement un sacrifice . (70. or.)	Nik aholku bakarra emango dizut: hil ezazu sakrifizio bat oraintxe bertan. (96. or.)
Évidemment il allait consulter le devin, tuer des sacrifices et suivre le meilleur sort. (83. or.)	Jakina, aztia kontsultatuko zuen, sakrifizioak hil eta paturik onenari jarraitu. (111. or.)
Toutes les mamans Doumbouya versaient des libations, tuaient des sacrifices pour que de leur giron descendît l'enfant qui serait le chef de la dynastie. (89. or.)	Ama doumbouyatar guztiek egiten zituzten libazioak, hiltzen zituzten sakrifizioak , beren altzotik atera zedin dinastiaren buru izango zen haurra. (120. or.)

Fini, akabo!

Orriak eta orriak bete nitzake halako beste hamaika konturekin, baina aski izan bitez adibide horiek malinkerazko zipriztinak euskarazko testuan txertatzeko egin ditudan ahalegin (ez beti arrakastatsuen) erakusgarri gisa. Nonbait bukatu behar, eta hementxe finitu edo akabatuko dut nik ere, malinkeraz hain esanahi berezia omen duen hitz horrekin, Kouroumak malinkerazko zentzuan erabiltzen baitu frantsesezko «finir» aditza, *bukatu* zentzuan ez ezik, baita *akabatu* edo *hil* esanahiarekin ere. Akaba dadila behingoz, beraz, azterketa linguistikoa hau, baina bizi dadila luzaz Kouroumaren obra ederra!

BIBLIOGRAFIA

- ALBERDI, Carmen (2019): «*Les soleils des indépendances*. Hybridation et défis traductologiques», *RECIT - Revue des Enseignants et Chercheurs en Interprétariat et Traductologie* 1 (Actes du Colloque International Traduire l’Afrique), 169.-189. or.
- KAMGANG, Emmanuel (2012): *Discours postcolonial et traduction de la littérature africaine subsaharienne après les années soixante* [doktore-tesia], Université d’Ottawa.
- KODAH, Mawuloé Koffi (2014): «Réflexions critiques sur le comique d’expression langagière dans *Les Soleils des Indépendances* et Allah n’est pas obligé d’Ahmadou Kourouma», *International Journal of Humanities and Social Science Invention* 3 (6), 12.-26. or.
- KOUROUMA, Ahmadou, in BADDAY Moncef S. (1970): «*Ahmadou Kourouma*, écrivain africain», *L’Afrique littéraire et artistique* 10, 2.-8. or.
- (1978): *Der Fürst von Horodougou* [Horst Lothar Teweleit itz.], Berlin: Rütten und Loening.
- (1981): *The Suns of Independence* [Adrian Adams itz.], New York: Africana Publishing Co.
- (1986): *Los soles de las independencias* [Fernando Santos itz.], Madril: Alfaguara.
- (1995): *Les soleils des indépendances*, Paris: Éditions du Seuil.
- (2023): *Independentzien eguzkiak* [Aiora Jaka itz.], Donostia: Erein & Igela.
- MORUWAWON, Babatunde Samuel (2010). «Analysis of Adrian Adams’ French Translation of *Les soleils des indépendances* into English», *Istanbul Üniversitesi Çeviribilim Dergisi* 1(2).
- SANTAMARÍA, Idoia (2020): «Klagenfurtetik Vienara, Ingeborg Bachmann gidari: *Aldiberekoren* itzulpena», *Senez* 51, 91.-122. or.
- SARRIUGARTE, Danele (2022): «Beruna eta hegoak: *Waldenen* itzulpenetik sigi-sagan abiatutako gogoeta pertsonala», *Senez* 53, 75.-80. or.
- VAN DEN AVENNE, Cécile (2005): «Passer d’un monde à l’autre, d’une langue à l’autre – Lecture de deux incipits d’Ahmadou Kourouma», in MOCHET M.A., BARBOT M.J., CASTELLOTTI V., CHISS J.L., DEVELOTTE C., MOORE D. (arg.) *Plurilinguisme et apprentissage: Mélanges Daniel COSTE*, Paris: École normale supérieure.